

7/2014 FORU ARAUA, ekainaren 11koa, joko-jardueren gaineko zergari buruzkoa (BAO Ekainaren 17koa)

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek 2014ko ekainaren 11ko Osoko Bilkuran onartu dutela 7/2014 Foru Araua, ekainaren 11koa, joko-jardueren gaineko zergari buruzkoa, eta arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

EKAINAREN 11KO 7/2014 FORU-ARAUA, JOKO-JARDUEREN GAINEKO ZERGARI BURUZKOA.

HITZAURREA

2014ko apirilaren 21eko 7/2014 Legearen bidez, Ekonomia-itunaren Batzorde Mistoak Ekonomia Ituna aldatzeko 2014ko urtarrilaren 16an hartu zuen erabakia onetsi da.

Ekonomia-itunaren Batzorde Mistoak hartutako erabaki horren edukiak -Batzar Nagusiek 2014ko 2014ko martxoaren 26ko 1/2014 Foru Arauaren bidez berretsi dute erabaki hori, eta aipatutako legeak aldarrikatu du- berekin ekarri du tributu berriak (orain arte gure zerga-sisteman ez zeudenak) ituntzea, zegoeneko itunduta zeuden beste batzuen ituntze-baldintzak aldatzeaz gainera.

Joko-jardueren gaineko Zerga da ituntze berriko tributu horietako bat, joko arautzeko 2011ko maiatzaren 27ko 13/2011 Legeak sortu zuena, eta indarrean dagoen Ekonomia Ituneko 36. artikuluan xedatutakoarekin bat, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura eraentzeko. Beraz, beharrezkoa da xedapen hau ematea, batetik, zergapetze mota berri honi buruzko arauketa gure antolamenduan sartzeko eta, bestetik, arauketa horretan Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak jasotzeko.

Zerga honen zergadunek ekitaldian zehar egindako eragiketa-bolumenaren arabera tributatuak diote Bizkaiko Foru Aldundiari, eta, bolumenaren proportzioa zehazteko, kontuan hartuko da Bizkaiko Lurralde Historikoko egoiliarrek jokatutako zenbatekoek duten pisu erlatiboa ekitaldi horretan guztira jokatutako zenbatekoarekin alderatuta.

Zenbateko horiek Bizkaiko Foru Ogasunari ordaintzeko, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezarritako ereduak zein prozedurak erabiliko dira.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedatutakoa betetzeko, memoria ekonomikoari buruzko txostena eta genero-eraginaren ebaluazioari buruzko txostena doaz foru arau honekin batera.

1. artikulua. Izaera.

Joko-jardueren gaineko Zerga zeharkako tributua da, joko-jarduerak foru arau honetan xedatutako moduan kargatzen dituen.

2. artikulua. Aplikatu beharreko arauak.

1. Ekonomia Ituneko 36.artikuluak xedatutakoaren esparruan, foru arau honekin eta berau garatzen duten xedapenekin bat galdatuko da zerga.
2. Foru arau honetan xedatutakoa gorabehera, indarrean jarraituko du barne-ordenamenduaren parte bihurtu diren nazioarteko tratatu eta hitzarmenetan xedatutakoak.

3. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

Zergadunek, zerga-egoitza edonon dutela ere, Bizkaiko Foru Aldundiari ordainduko diote tributua, ekitaldi horretan Bizkaiko Lurralde Historikoa egindako eragiketen zenbatekoaren heinean.

Ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioa kalkulatzeko kontuan hartuko da zer pisu erlatibo duten Bizkaiko Lurralde Historikoko egoiliarrek joko-modalitate bakoitzean jokatutako zenbatekoek. Proportzioari dagokion portzentajea bi hamartarretara biribilduko da, eta Espainiako lurraldean bizi ez diren jokalarien kuotei ere aplikatuko zaie.

Jokalariaren egoitza identifikatzea eskatzen ez den joko-modalitateetan, Bizkaiko Foru Aldundiari kuota likidoak modu eskusiboan egotziko zaizkio zergadunaren egoitza fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoenean, gerora administrazioen arteko konpentsazioak egin badaitezke ere.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, kirol eta ongintzako elkarrekiko apustuen eta Estatuko elkarrekiko zaldi-apustuak egiten dituztenen kasuan jokalariaren egoitza identifikatzen ez denez gero, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio zergaren ordainarazpena, baldin eta salmenta-puntua Bizkaiko Lurralde Historikoan badago.

4. artikulua. Zerga-egitatea.

1. Honako joko, zozketa, lehiaketa, apustu eta joko-jarduera hauek baimendu, egin edo antolatzea da zerga honen zerga-egitea, baldin eta jarduera hori Estatu osorako bada:
 - a) Loteriak, apustuak eta bestelako joko-jarduerak, non etorkizuneko emaitza ezezagunen gainean arriskatzen diren diru-zenbatekoak edo ekonomikoki edozein modutan ebaluatu daitezkeen objektuak (parte-hartzaileen artean transferitu daitezkeenak), kontuan hartu gabe haietan zer den nagusi: jokalarien trebetasun-gradua, edo zorte, enbido edo zori hutsa.
 - b) Zozketa eta lehiaketak, kontraprestazio ekonomikoa eskatzen dutenak parte hartu ahal izateko.
 - c) Noizbehinkako jokoak; noizean behin egiten direlako bereizten dira aurreko letretan adierazitako jokoetatik.
 - d) Mugaz gaindiko joko-jarduerak, hau da, Espainiako lurraldetik kanpoko egoitza duten pertsona fisiko edo juridikoek Espainiako lurraldean antolatzen dituzten edo bertako egoiliarrei eskaintzen dizkieten joko-jarduerak.
2. Jokoaren kontzeptutik kanpo utzi badira ere, zerga-egitatearen barruan orobat sartzen dira publizitate- edo sustapen-helburuak dituzten Estatuko ausazko konbinazioak, jokoa arautzeko 2011ko maiatzaren 27ko 13/2011 Legeko 2.2.c) artikuluan arautzen direnak.

5. artikulua. Zergapean ez dauden jokoak.

Estatu osorako diren loteria-jokoak ez dira zergapean egongo, edozein dela ere loteria horiek antolatu edo egiten dituen operadore publikoa edo pribatua.

Aitzitik, beti daude zergapean operadore publikoek zein pribatuek Estatu osorako antolatu edo egiten dituzten loteriaz besteko jokoak.

6. artikulua. Sortzapena.

Joko-jarduerak baimendu, egin edo antolatzearekin batera sortuko da zerga. Denbora-epe baterako baimendu, egin edo antolatutako joko-jardueren kasuan, berriz, urte natural bakoitzeko lehen egunean sortuko da zerga, eta, baimena lortzen den urtean, berriz, jarduerok baimentzen diren egunean.

7. artikulua. Zergadunak.

Zerga honen zergadunak dira pertsona fisikoak, juridikoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 34.3 artikuluan adierazitako erakundeak, baldin eta zerga honek kargatutako jarduerak antolatu edo garatzen badituzte.

8. artikulua. Erantzuleak.

Zergaren ordainketari dagokionez, erantzule solidario izango dira, oro har, edozein bitarteko erabiliz zerga-egoitza Espainiako lurraldean duten pertsonen joko-jarduerak eskaintzen dizkietenak, bai eta jokoaren garatzearen ondoriozko onurak lortzen dituztenak ere -kasu bietan, joko-operadoreek diharduten lurraldean dihardutela-, betiere ez badute egiaztatzen operadoreek halako joko-jarduerak egin edo antolatzeke gaitzen dituzten tituluak dituztela.

Halaber, erantzule solidario izango dira -egiaztatzen ez badute aipatutako titulu horiek egon badaudela- azpiegituren jabeak edo enpresaburuak nahiz informazioaren gizarteko zerbitzu-emaiak, arrazoiz jo dezaketenean azpiegitura edo zerbitzuok foru arau honetan arautzen diren joko-jarduerak egiteko erabiltzen direla edo horretarako berariaz baliatzen direla.

Artikulu honetan arautzen den erantzukizuna saihesteko, edozein pertsonak edo erakundeak lortu ahal izango du beharrezko informazioa (Jokoaren Batzorde Nazionalaren web-orriaren bidez) egiaztatzeke ea joko-jarduerak batek gaitze-titulua duen, jokoaren arautzeke 2011ko maiatzaren 27ko 13/2011 Legeko 7. artikuluan eta aplikatu daitezkeen gainerako arauetan xedatutakoaren arabera.

9. artikulua. Zerga-oinarria.

Joko motaren arabera, honako sarrera hauek osatuko dute zerga-oinarria:

- a) Diru-sarrera gordinak, hau da, jokoan parte hartzeko erabilitako zenbateko guztiak zein jokoaren antolatu edo egitearen ondorioz zuzenean eskura daitezkeen beste edozein diru-sarrera.
- b) Diru-sarrera garbiak, hau da, jokoan parte hartzeko erabilitako zenbateko guztiak eta jokoaren antolatu edo egitearen ondorioz zuzenean eskura daitezkeen beste edozein diru-sarrera, behin operadoreak parte-hartzaileei ordaindutako sariak kenduta. Apustu gurutzatuen kasuan edo beste joko batzuen kasuan, non zergadunek jokatzeko diren zenbatekoak diru-sarrera propio gisa lortzen ez dituztenean eta haien eginkizuna zenbatekoak jokalariei irabazleei ematera mugatzen denean, bada, apustu eta joko horietan honako hauek osatuko dute zerga-oinarria: komisioak eta joko-jardueren lotutako zerbitzuak direla eta jasotako zenbatekoak (haien izena edozein dela), jokalariek zergadunari ordaindutakoak.

Publizitate- edo sustapen-helburuak dituzten ausazko konbinazioen kasuan, berriz, honako hauen merkatu-balioaren zenbateko osoa izango da: parte-hartzaileei eskainitako sariena edo emandako abantailena.

Zenbatekoa tarifakazio gehigarriko bitartekoen bidez ordaintzen bada, honako hau izango da jokoan parte hartzeko erabilitako kopurua: tarifakazio gehigarriko zenbatekoari zeharkako zerga kenduta ateratzen den zenbatekoa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar denean, tarifakazio gehigarria honako hau izango da: jokoan parte hartzeko erabilitako zenbatekoari deiararen kostua (merkatu-balioaren arabera) kenduta ateratzen den zenbatekoa. Ondorio hauetarako, ez dira kontuan hartuko eragiketen gaineko zeharkako zergak.

10. artikulua. Karga-tasa.

1. Honako karga-tasa hauek aplikatuko dira:

1. Estatu kirol-apustuak, Estatuaren kirol-apustuetan eta Estatuaren Loteria eta Apustuen Organismo Nazionalak kudeatzen dituen beste joko batzuetan diru-bilketaren

eta sarien banaketa arautzen duen martxoaren 27ko 419/1991 Errege Dekretuaren betebeharren pean daudenak: foru arau honetako 9. artikuluko a) letrako zerga-oinarriaren 100eko 22.

2. Kiroleko elkarrekiko apustuak, kontrapartida-apustuak eta apustu gurutzatuak; hipikako elkarrekiko apustuak eta kontrapartida-apustuak; beste elkarrekiko apustu batzuk, kontrapartidakoak eta gurutzatuak: foru arau honetako 9. artikuluko b) letrako zerga-oinarriaren 100eko 20.
 3. Zozketak: foru arau honetako 9. artikuluko b) letrako zerga-oinarriaren 100eko 20, salbu onura publikokoak edo ongintzakoak, zerga-oinarri beraren 100eko 5 tributatuko baitute.
 4. Lehiaketak eta beste joko batzuk: foru arau honetako 9. artikuluko b) letrako zerga-oinarriaren 100eko 20.
 5. Publizitate- edo sustapen-helburuak dituzten ausazko konbinazioak: foru arau honetako 9. artikuluan haietarako ezarritako zerga-oinarriaren 100eko 10.
2. Beren lurraldeetan egoitza fiskala duten eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoetan benetan kokatuta dauden operadoreen tasak hauek izango dira:
1. Estatuako kirol-apustuak, Estatuaren kirol-apustuetan eta Estatuaren Loteria eta Apustuaren Organismo Nazionalak kudeatzen dituen beste joko batzuetan diru-bilketaren eta sarien banaketa arautzen duen martxoaren 27ko 419/1991 Errege Dekretuaren betebeharren pean daudenak: foru arau honetako 9. artikuluko a) letrako zerga-oinarriaren 100eko 22.
 2. Kiroleko elkarrekiko apustuak, kontrapartida-apustuak eta apustu gurutzatuak; hipikako elkarrekiko apustuak eta kontrapartida-apustuak; beste elkarrekiko apustu batzuk, kontrapartidakoak eta gurutzatuak: foru arau honetako 9. artikuluko b) letrako zerga-oinarriaren 100eko 10.
 3. Zozketak: foru arau honetako 9. artikuluko b) letrako zerga-oinarriaren 100eko 10, salbu onura publikokoak edo ongintzakoak, zerga-oinarri beraren 100eko 2,5 tributatuko baitute.
 4. Lehiaketak eta beste joko batzuk: foru arau honetako 9. artikuluko b) letrako zerga-oinarriaren 100eko 10.
 5. Publizitate- edo sustapen-helburuak dituzten ausazko konbinazioak: foru arau honetako 9. artikuluan haietarako ezarritako zerga-oinarriaren 100eko 5.

11. artikulua. Kuota osoa.

Kuota osoa zerga-oinarriari karga-tasa aplikatuta ateratzen den emaitza da.

12. artikulua. Likidazioa eta ordainketa.

Zergadunek zergaren autolikidazioa egin eta kuota ingresatu beharko dute, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezarritako dituen arau, eredu eta epeen arabera.

13. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan xedatutakoa beteko da foru arau hau ez betetzegatik egiten diren arau-hausteak kalifikatzeko eta zehapenak ezartzeko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra. Arauak indargabetzea.

Indargabetuta geratzen dira foru arau honetan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.

Foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuak foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emango dituzte.

Bilbon, 2014ko ekainaren 11n.

Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak,

JON ANDONI ATUTXA SAINZ

Batzar Nagusietako Lehendakariak,

ANA MADARIAGA UGARTE